

## **2007-03-06ko OHIKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko martxoaren seian, arratsaldeko 20:35an, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak Marimi Ugalde Zabala alkatea buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta, Agustin Zubeldia Iraola, Eugenio Loidi Garmendia eta Jose Luis Olano Zubeldia.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: Aitor Lasa Olalde eta Gregorio Lasa Etxezarretak.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgiak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **AURREKO AKTAK ONARTZEA (07-02-14).**

2007ko otsailaren 14ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

### **BIGARREN GAIA**

#### **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA**

- 2007-02-13ko 14/07 Dekretua: “Construcciones Trati, S.L.” enpresak jarritako 12.400€-tako fidantza itzultzea.
- 2007-02-09ko 15/07 Dekretua: urtarrilari dagozkion fakturak onartzea, 30.069,21€, bai eta 16. gunea hiritartzeari dagokion 8.033,13€-tako zertifikazioa.

- 2007-02-09ko 16/07 Dekretua: INEMeko “Fomento de Empleo” programaren barneko dirulaguntza eskaera egitea.
- 2007-02-14ko 17/07 Dekretua: Dionisio Caballerok egindako obra baimen eskaera baldintza jakin batzuekin onartzea.
- 2007-02-16ko 18/07 Dekretua: Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergari buruzko 2007ko errolda, 71.584€, onartzea.
- 2007-02-21eko 19/07 Dekretua: gizarte larrialdiko dirulaguntza (2.510,15€) onartzea.
- 2007-02-20ko 20/07 Dekretua: hainbat udal langileren aparteko ordu batzuk ordaindu eta besteak jai hartzea onartu.
- 2007-02-22ko 21/07 Dekretua: Alfonso Pazos Fernandez abokatuari erantzuna ondarezko erreklamazio espedientea irekitzeko eskaera ezetsiz.
- 2007-03-01eko 22/07 Dekretua: gizarte larrialdiko dirulaguntza (2.168,16€) onartzea.
- 2007-03-01eko 23/07 Dekretua: udaleko bi langileren euskara ikastaroko matrikula ordainketa onartzea.
- 2007-03-01eko 24/07 Dekretua: Juan Manuel Arsuaga Basagoitiaren eskaria onartuz, SS-2700-AD matrikula duen ibilgailua Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzetik salbustea.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO, ISIDRO-ENEA GUNEAREN URBANIZAZIO BATERATURAKO HITZARMENA.**

Alkateak planoak erakusten ditu eta guztiei azaltzen die urbanizazio bateratuko hitzarmenak oro har ezartzen duena eta aipatutako gunea zein egoeratan geldituko den.

Jose Luis Olano Zubeldiak galdetzen du hor azaleratzen den errekatxoak ez duen usaien arriskurik sortuko. Alkateak erantzuten dio erreka hori menditik datorren ur garbia dela. Herritik, etxeetatik, datozen urak banandu egiten direnez ur zikinak ez daukala erreka honetara joaterik. Era berean, azaltzen du, esandako herriko ur horiek ere gerora jaso egin beharko direla eta errekarara isuri aurretik tratatu. Guzti hori

kontuan hartua dute jadanik arau subsidiarioak egiten aritu diren arkitektuek eta udal arkitekto teknikoak.

Guzti hau argitu ondoren, udalbatzak aho batez onartzen du Isidro-Enea gunearen urbanizazio bateraturako hitzarmena.

#### **LAUGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IKASTETXE BERRIRAKO LEHIAKETAREN KONTRATAZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA**

Kontratazio mahaiaren txostena ikusirik, udalbatzak aho batez onartzen du ikastetxe berrirako lehiaketaren kontratazio mahaiak eginiko proposamena eta lizitazioa Irurako Ikastola Kooperatiba Elkarteari esleitzea erabakitzen du.

#### **BOSGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, BADAGOKIO, IKASTETXE BERRIA EGITEKO LUR SAILAREN ZESIO HITZARMENA**

Alkateak hitzarmenaren nondik norakoak azaldu eta plano baten bitartez zesioaren berri zehatza eman ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du ikastetxe berria egiteko lur sailaren zesio hitzarmena onartzea.

#### **SEIGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, IKASTETXE BERRIA EGITEKO LUR SAILAREN ZESIO HITZARMENA SINATZEKO AHALMENA ALKATEARI EMATEA**

Udalbatzak aho batez erabaki du ikastetxe berria egiteko lur sailaren zesio hitzarmena sinatzeko Marimi Ugalde Zabala, alkatea, ahalmentzea.

#### **ZAZPIGARREN GAIA**

## **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2007 URTEKO LAN EGUTEGIA**

Langileen proposamenak ikusirik, Jose Luis Olano Zubeldiak galdetzen du dena nolabait bateratzerik badagoen, ea argiago jartzerik badagoen. Eugenio Loidi Gamendiak, ildo beretik, proposamena argiagoa eta ulerterrazagoa izan dadin, guztia eskaera bakar batetan ezartzerik ba al dagoen galdetzen du. Marimi Ugalde Zabalak bestalde dio, berari ere larregi iruditzen zaiola adibidez abenduko 24 eta 31 egunak jai egin eta udala 4 egun jarraian itxita edukitzea.

Alkateak egutegia onartzea proposatzen du, baina, lehenbailehen guztiekin hitz egingo duela dio, batetik, guztia erabat definitzeko, eta bestetik, honetarako antolatu beharra dagoela adierazteko, bai txandak erabakiz, bai eta opor egunak.

Udalbatzak aho batez erabaki du langileek proposatutako 2007 urteko lan egutegia onartzea baina aipatutako baldintzekin.

### **ZORTZIGARREN GAIA**

#### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO FAKTURA**

Tolosaldeko Mankomunitateak, 2007 ekitaldirako bere faktura igorri dio Udal honi. Berau, Sasieta zabortegiko isurketa eta beste gainontzeko zerbitzuei dagokiena da, 2007. urtean zerbitzu honek suposatuko duenaren %50aren faktura hain zuzen ere.

Udalbatzak aho batez erabaki du, Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura.

**BEDERATZIGARREN GAIA**  
**GALDERAK ETA ESKAERAK**

Beste bi puntu sartzea komenigarria iruditzen zaio alkateari. Puntu hauek eguneko gaien artean aurretiaz sartzea ezinezkoa izan da, eskatzaileak espedientera ekartzea beharrezkoak zituen dokumentu guztien ekarpena azken uneraino dudakoan izan delako. Gaiak ondokoak dira:

- Onartzea, badagokio, Isidro Enea guneko borondatezko birpartzelazioa.
- Onartzea, badagokio, Isidro Enea guneko borondatezko birpartzelazio hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari ematea.

Udalbatzak aho batez erabakitzen du, gai bi hauek ere bertan eztabaidatzea.

**ONARTZEA, BADAGOKIO, ISIDRO ENEA GUNeko BORONDATEZKO**  
**BIRPARTZELAZIOA.**

Bilera honetako hirugarren gaiaren hari beretik, Isidro-Enea guneko borondatezko partzelazioa egin eta 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzko arauaren arabera dagozkion lagapen eta hirigintza kargak kontuan hartzen dituen birpartzelazioa ikusirik, Udalbatzak aho batez erabakitzen du birpartzelazioa onartzea.

**ONARTZEA, BADAGOKIO, ISIDRO ENEA GUNeko BORONDATEZKO**  
**BIRPARTZELAZIO HITZARMENA SINATZEKO AHALMENA ALKATEARI**  
**EMATEA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du Isidro-Enea guneko borondatezko birpartzelazio hitzarmena sinatzeko Marimi Ugalde Zabala, alkatea, ahalmentzea eta sinatu ondoren, 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak bere 43. artikuluan ezartzen duen jendaurreko erakustaldia agintzea.

## **GALDERA ETA ESKAERA GEHIAGO:**

- Jose Luis Olano Zubeldiak, Alkateari galdetzen dio ea zer berri dagoen frontoiaren ondoan iturri bat jartzeko eskaeraren inguruan. Alkateak erantzuten du begiratu dutela eta udal arkitekto teknikaria toki eta posibilitate egokienaren bila dabilela.
- Marimi Ugalde Zabalak azaltzen du frontoiarekin dauden arazoak hor jarraitzen dutela oraindik, oraingoan saiakera berri bat egin behar dutela eta oraingokoa behin betikoa izango dela espero dutela. Edozein modutan ez dirudi enpresakoak oso ziur jokatzeko dutenik. Bestalde, frontoiko eserleku “teleskopikoak” egiten dituen enpresarekin egon dira eta honek eskaintzen duena oso irtenbide ona ematen duela.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 21:40ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.